

**AGINDUA, 2022KO XXXXXAREN XX(E)KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE
ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERA
EMATEN BAITZAI DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN
ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA
PRESTATZEKO PROZEDURARI.**

Xedapen orokorrak egiteko prozedurak arautzen dituen ekainaren 30eko 6/2022 Legeak ezartzen du zer prozedurari lotu beharko zaion Eusko Jaurlaritzaren jarduera, izaera orokorreko xedapenak egiteko, xedapen horiek —edozein gairen gainekoak izanik ere— antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten heinean eta lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen duten heinean.

Aipatutako legearen 12. artikulua ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dela, eta lege beraren 13. artikulua, bestalde, zehazten du zer eduki jaso beharko dituen prozedura hasteko agindu horrek.

Azaldutako guztia ikusita, Agindu honen bidez betetzen da aurreko artikuluek agintzen dutena.

Era berean, kontuan hartzen da Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren 6/2022 Legearen 4. artikuluan xedatutakoa, zeinak ezartzen baitu zer printzipio bete behar diren erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, orain interesatzen zaigunerako.

Arauren xedea eta helburua.

Ekimenaren helburua da Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legearen ezarpen osoa bermatzea, diru-sarrerak bermatzeko prestazio autonomikoari dagokionez.

Esanguratsuak dira lege horrek dakartzan berrikuntzak. Alderdi substantiboak eta prozedurazkoak hartzen dituzte.

Lehenengoek prestazioaren estaldura nabarmen handitzea dakarte, eta, gehienez ere, erregelamenduaren esku-hartzea behar dute alderdi guztiz osagarrietan.

Hala ere, berritasun adjektiboak, prozedurazkoak, ugariak dira, eta erregelamenduak egiteko ahala erabiltzea eskatzen dute, legearen aurreikuspenak garatu, haren arauak osatuz eta, azken batean, aplikatzea ahalbidetuz.

Horregatik, aipatutako legeak justifikatzen du ekimen hori. Bertan dago bere izateko arrazoia, eta bere helburua haren erabateko eraginkortasuna bermatzera bideratuta dago.

Erregelamenduak honako eduki hauek jorratuko ditu, labur-labur azalduta:

1) Diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko, zenbatekoa eguneratzeko, zehatzeko eta bidegabeki jasotako diru-sarrerak itzultzeko prozedurak arautzea, bai eta bitarteko elektronikoaren bidez izapidetzea ere.

Puntu horretan sartzen da, jakina, erregelamendu bidez esku hartzea eskatzen duten prozedura horiekin lotutako eta lagungarriak diren gai guztien erregulazioa.



2) Prestazioaren araubide ekonomikoa arautzea, hau da, eskatzaileen, titularren eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunen behar ekonomikoaren egoera identifikatzea.

3) Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek eta onuradunek bete beharreko baldintzak egiaztatzeke moduak identifikatzea.

4) Prestazio ekonomikoaren bidez babes behar duten zaugarritasun-egoera berriak aitortzea, dela prestazioa jasotzeko baldintzetako batzuk malgutuz, dela bizikidetzaren unitate berriak eratzea aurreikusiz.

5) Prestazioaren titularren eta onuradunen betebeharrak garatzea, Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legean aurreikusita daudenak, lege horretatik sortzen diren betebeharrak segurtasun juridikoaren parametroetatik beteko direla bermatzeko.

6) Prestazioa aitortzearekin eta kudeatzearekin lotutako beste edozein eduki, baldin eta behin eta berriz aipatutako legeak berriaz eskatzen badu erregelamendu bidez garatzeko, edo erregelamenduaren esku-hartzea behar badu, legea osatuz, haren aplikazio osoa bermatze aldera.

Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 9. artikulua ezartzen duenez, oro har, EAEko botere publikoek, beren eskumenen esparruan, norbanakoaren eta hura txertatzen den taldeen askatasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta benetakoak izatera zuzenduko diren baldintzak sustatzeko eta oztupoak kentzeko neurriak hartuko dituzte. Gainera, 10. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio gizarte-laguntzaren arloko eskumen eskusiboa, Konstituzioko 148.1.20 artikulua arabera.

Eskumen hori egikaritzean, eta XII. legegintzaldiko 11. konpromisoa betetzeko xedearekin («Bazterkeriaren aurkako diru-sarrerak bermatzeko sistema garatzea eta hobetzea»), Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko Legea aldatuko duen lege-aurreproiektua egiteko eskatu zen, zeina Eusko Legebiltzarrak 2022ko abenduaren 22ko saioan onartu baitzuen.

Azaldu den bezala, ekimen honek lege horretan du bere bidezotasunaren eta bideragarritasunaren benetako oinarria.

Lan eta Enplegu Sailak du horren eskumena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 6. artikulua indarrez.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuak xedatzen du Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzari dagokiola, Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren bitartez, araudi-proposamenak egitea, hurrengo arlo hauetan: Enplegua, Prestakuntza, Diru-sarreraren Bermea eta Gizarteratzea.

Ordenamendu juridikoan dituen ondorioak.

Araudi honetan arautzen ez den guztirako, Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak xedatutakoa hartuko da kontuan

Eragin ekonomikoa eta aurrekontu-eragina.

Beharrezkotzat jotzen da memoria ekonomiko espezifiko bat egitea, 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan aurreikusitako baldintzetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Presako deklarazioa

2022ko abenduaren 22an, Eusko Legebiltzarrak Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko Euskal Sistemaren Legea onartu zuen, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hiru hilabetera jarriko da indarrean, azken xedapenetako laugarrenak aurreikusten duen bezala.

Azaldu den bezala, lege horrek berrikuntza garrantzitsuak sartzen ditu diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren araubide juridikoan, eta berrikuntza horiek zaurgarritasun-egoeren babes handiagoa eta kudeaketaren eraginkortasun handiagoa ahalbidetuko duten egiturazko erreformak abian jartzera bideratuta daude.

Erregulazioak gai substantibo berriak jorratzen ditu, hala nola prestazioa eskuratzeko baldintza berriak ezartzea, bizikidetzaren unitatea orain arte ezagutu gabeko parametroetatik osatzea, prestazioaren ordainketa partzialki etetea dakarten kasuen zerrenda bat artikulatzea, eta abar.

Era berean, preskripzio berritzaileak jasotzen ditu prozedura-alderdietan, gaur egun aurreikusita ez daudenak, hala nola erantzukizunpeko adierazpenari dagozkionak prestazioa eskuratzeko baldintza gisa, zenbatekoa eguneratzeko prozedura ex novo aurreikustea, aldi berean eta espediente berean izapidetzea, kontrol-, zehapen- edo eguneratze-prozedura eta bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko prozedura, Administrazioaren alde aitortutako eskubideak betetzeko konpentsazio-arauak ezartzea, premia ekonomikoaren egoera definitzea, aipatutako prozedurak bide telematikoz izapidetzeko aukera, eta abar.

Aipamen horrek, ustez adibide gisa, agerian uzten du beharrezkoa dela erregelamendu bat ematea, legea garatu, aplikatu eta osatuko duena eta, azken batean, legea bere osotasunean aplikatu ahal izango duena.

Legearen agindu guztiak legea indarrean jartzen den egunean aldi berean aplikatzea zaila denez, eta aitortutako prestazio guztiak legearen ondoriozko preskripzio berrietara egokitu behar direnez – kontuan hartuta beste 50.000 espediente baino gehiago daudela, onartutako beste hainbeste prestaziori dagozkienak –, zazpigarren xedapen iragankorrek, 25., 26., 28., 35.1.b), 2., eta 3. eta 82. artikuluen pixkanakako aplikazioari buruzkoak, azaltzen duena justifikatuta geratzen da; hau da, aukera ematen dute bizikidetzaren unitateen eta salbuespenezko bizikidetzaren unitateen konfigurazio berrira pixkanaka egokitzeko, ezkontzaren antzeko harremana dagoela kontuan hartzeko arauak eta presuntzioak aplikatzeko, eta prestazioaren zenbatekoa aldizka eguneratzeko.

Aipatu berri dugun pixkanakako aplikazioa bat etorri behar da legea erabat

aplikatzen dela bermatzeko erregelamendu-garapenarekin. Izan ere, betearazpen-erregelamendurik gabe, aipatutako legea ez da erabat eraginkorra izango. Kontuan hartu behar da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea zuzenean aplikatzeak ez dituela konpontzen Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legeak ezartzen dituen prozeduren definizioan planteatzen dituen ziurgabetasunak. Hain zuzen ere, erregelamendu bidez erabaki behar dira prozedura horiek.

Begien bistakoa da, aurreko baieztapena argitzen duen adibideren bat jartzearren, Estatuko legeak ez duela biderik ematen zenbatekoa eguneratzeko prozedura hasteko egintza identifikatzeko, ez eta prozedura horren nahitaezko edukia zehazteko ere, eta ez duela argitzen zer aldi zehatz hartuko diren kontuan interesdunen premia ekonomikoko egoera kalkulatzeko, ezta haren babesean ere zer egin beharko den prozedura horren izapidetzearen barruan prestazioa eskuratzeko baldintzetako bat betetzen ez bada; era berean, ez du biderik ematen identifikatzeko zer kasutan ez den bidezkoa eguneratze-prozedura eskatzea izapidetzen ari diren beste batzuen interakzioaren ondorioz.

Asko dira prestazioa eskuratzeko, zenbatekoa eguneratzeko eta kontrolatzeko prozedurak eta horiei lotutako gainerako gaiak arautuko dituen erregelamendua garatzeko edukiak; horiek gabe, esan bezala, legea indarrean sartzea formala baino ez da izango.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 6.3 artikulua honako hau ezartzen du: «Xedapen orokorrak egiteko prozedura presaz izapidetzea erabaki ahal izango da, interes publikoko arrazoi larriak edo aparteko inguruabarrak daudenean eta, aurretik aurreikusi ezin izan badira ere, presaz onartu behar direnean. Era berean, presaz izapidetzea erabakiko da baldin eta beharrezkoa bada araua indarrean jartzea epe jakin batean, hain zuzen zuzentarauen transposizioarako eskatutako epean, edo Estatuko oinarrizko legedira egokitzeko edo arau jakin bat Konstituzioaren kontrako deklaratzeko edo baliogabetzeko duten epaileen erabakietara egokitzeko epean».

Aurreko azalpena bat dator transkribatutako manuaren bigarren paragrafoa egituratzen duen kasuarekin; hau da, berehalako esku-hartze arauemaile bat eskatzen da, Europar Batasuneko zuzenbidearen edo Estatuko oinarrizko arauaren nagusitasuna bermatzeko, bai eskumena duen botere legegilearen edo betearazlearen esku-hartzea tartean dela, bai benetako babes judizialerako eskubidea tartean dela, xedapen orokor bat deuseztatzen edo Konstituzioaren aurkakotzat jotzen duten epaiak betearazteari dagokionez.

Orain aztertzen ari garen kasuan, araugintzako esku-hartzearen berehalakotasunaren helburua da lege autonomikoa indarrean jartzen den egunean erabat eraginkorra izango dela bermatzea, herritarren onerako, bai eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari agindutako zerbitzuaren kudeaketaren eraginkortasunerako ere.

6/2022 Legeak lotura nabarmenak ditu Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 27.1 artikuluaekin – eta antzeko testua du –. Hori dela eta, oso baliagarria da Auzitegi Gorenaren interpretazioa aztertzea.

Hala, Administrazioarekiko Auzien Salaren 2020ko uztailaren 3ko Epaiaren 3. Oinarri Juridikoak (137/2019 kasazio-errekurtsoa) abalatzeko deklarazioa, araua ezartzeko egutegian justifikatzen duena. Sala berak antzeko iritzia eman zuen Auzitegi Gorenaren 2020ko ekainaren 22ko epaian (260/2018 kasazio-errekurtsoa, 5. Oinarri Juridikoa).

Azken batean, berehalako araugintza-ekintza behar da, legeen izapidetze parlamentarioako bide arruntak edo presako prozedurak eskatzen duena baino epe laburragoan, eta Auzitegi Gorenak babesten du izapidetzearen presako oinarria, lege autonomikoaren antzeko erregulazio batean oinarrituta dagoena.

Azkenik, bidezkoa da identifikatzea zer ondorio izango dituen presako deklarazioak agindu honen bidez hasten den arauaren izapidetzean, eta honela zehaztuko dira:

- a) Txostenak edo alegazioak egiteko epeak erdira jaitea.
- b) Aurreiazko kontsultaren izapideak kentzea, 6/2022 Legearen 11.4 artikuluan xedatutakoaren babesean –gainera, haren funtzionaltasuna zalantzaragarria da, legea baita dekretua gaitzen duen benetako oinarria, dekretua onartzeko beharra zehazten duena, haren helburuak eta erregulazio-irismena zehazten dituena–, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren txostena –ez baita lege-mailako arau batean eskatutako nahitaezko txosten bat– eta IKTen Batzorde Estrategikoaren txostena –Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Kudeatzeko Eredua arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren 11.1.h) artikuluan aurreikusitakoa–; izan ere, aurreproiektuak informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerari dagokionez proposatuko duen erregulazioa sektore publikoko gainerako sektoreek izango dute.

Egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak.

6/2022 Legearen 13.1 artikuluan e) apartatuan xedatutakoari jarraikiz, prozedura hasteko Aginduak proposatu den arauketaren gaia eta edukia direla eta bidezko iritzitako izapide eta txostenak aipatuko ditu. Adierazitakoa kontuan harturik, jarraian, aurreikusitako dekretu-proiektua idazteko eta onartzeko hasiera batean eskatzen diren izapideak eta txostenak aipatuko dira:

1.- Prozedura hasteko Agindua egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legesarean argitaratzea.

6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, eta, argitaratzearekin batera, era automatikoan jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren bidez kotasanari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ditzaten.

Era berean, prozedura hasteko agindu hau ezagutza partekatuko “Legesarea” lankidetzaren espazioan argitaratuko da, xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Jaurkitzearen Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuaren 1. puntuan xedatutakoarekin bat etorritik.

2.- Proiektua idaztea.

Dekretu-proiektuaren testua Agindu honen edukia aintzat hartuta idatziko da, eta lortu nahi diren helburuei ondoen egokitzen zaizkien aukerak hartuko dira kontuan, beharrezko eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak betez eta lege-aurreproiektuaren egokitasuna eta legekotetasuna bermatzeko egiten diren kontsulten emaitza aintzat

hartuta, 6/2022 Legearen 14.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Testuan behar bezala azaldu beharko dira Dekretu-proiektua egiteko erabakia justifikatzen duten arrazoiak eta oinarri juridikoak, 6/2022 Legearen 14.2 artikulua eta Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen Erabakiaren lehenengoa apartatuko 1. puntuak ezartzen duten moduan; erabaki horren bidez onartu dira arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak (2017ko abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.).

Idatzitako testuak elebiduna izan beharko du aldez aurreko onarpena jaso eta izapidetu aurretik, araudia idazteko prozesu osoan hizkuntza-bertsioak landu bitartean hizkuntza bien arteko berdintasuna bermatzeko, 6/2022 Legearen 14.5 artikulua ezartzen duen moduan, hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabilia, Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 14an hartu zuen Erabakian ezarritakoa aplikatuz (horren bidez onartzen dira xedapen orokorrak ele bietan egiteko neurriak, xedapenok lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma dutela ere).

3.- Generoaren arabeko eraginaren txostena.

6/2022 Legearen 14.4 artikulua ezartzen duenaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren generoaren arabeko eraginari buruzko txosten bat idatzi eta Emakunderen eskura jarriko da, legedian jasotakoa perfektionatzeko.

Txosten horren beharra bat dator Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikuluan ezarritakoarekin; txostenaren lanketan, generoaren arabeko eragina aurretiaz ebaluatzeari eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna ezabatu eta berdintasuna bultzatzeko neurriak hartzeari buruzko Jarraibideak beteko dira, Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean hartu zuen Erabakiaren bidez onartuak (erabakia 2012ko irailaren 25eko EHAA n argitaratu zen, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariak abuztuaren 21ean eman zuen 40/2012 Ebazpenaren bidez).

4.- Arau-eraginaren azterketaren memoria.

6/2022 Legearen 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoak, nahitaez, arau-eraginaren azterketaren memoria egingo du, aipatu xedapenean aurreikusitako moduan eta bertan aipatutako edukiak kontuan hartuta.

5.- Txosten juridikoa.

Beharrezkotzat jotzen da Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzuen Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoak txosten juridikoa egitea, 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.- Memoria ekonomikoa.

Lehenago esan bezala, beharrezkotzat jotzen da memoria ekonomikoa espezifikoa bat egitea, 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan aurreikusitako baldintzetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta

kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

7.- Araudi-proiektuaren aldez aurreko onarpena eta egoitza elektronikoan zein Legesarean argitaratzea.

Dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, dekretu-proiektuak Lan eta Enplegu Sailburuaren onospena jaso beharko du, 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Aldez aurreko onarpen-aginduari onartutako testu elebiduna eta aurreko apartatuetan aipatutako gainerako dokumentuak –espedientea osatuko dutenak– erantsiko zaizkio.

Aldez aurreko onarpena jaso duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratuko da, batez ere, 6/2022 Legearen 16.3 eta 17.3 artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, argitalpen horren data aldi berean gauzatuko diren izapide guztiak betetzeko epearen hasiera izango dela kontuan izanik.

Hala aldez aurreko onarpenaren agindua nola araugintza-proiektua Legesarea lankidetzeta-gunean argitara emango dira (2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuaren 2. puntua).

8.- Entzunaldi eta informazio publikoa.

Araudiaren testuak aldez aurreko onarpena jaso ondoren, entzunaldi eta informazio publikoaren izapidea egin beharko da, 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoa; horrekin batera, bete egingo da herritarren parte-hartzeari buruzko baldintza, herritarrei aldez aurretik kontsulta egiteko beharrik gabe; izan ere, hori bat dator 6/2022 Legearen 11.4 artikuluan, Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen Erabakiaren (arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzeko Erabakia) lehenengo apartatuaren 5. puntuan eta APELren 133.4 artikuluen bigarren paragrafoan xedatutakoarekin.

Entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak jarraitutasunez edo beste une batean egitea eskatzen ez duten izapideekin batera egingo dira, epe komun berean, aldez aurretiko onospena jaso duen testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

9.- Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen parte-hartzea eta haiei kontsulta egitea.

Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazioek parte hartzeko eta haiei kontsulta egiteko izapidea beteko da, 6/2022 Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoa. Izapide hori EUDELen (Euskadiko Udalen Elkartea) eta lurralde historikoetako hiru aldundien bidez egingo da, kontuan hartuta administrazio horiek hainbat jarduera garatzen dituztela enplegu-politika aktiboen esparruan.

10.- Nahitaezko txostenak eta irizpenak.

Prozedura bideratzean dagozkion nahitaezko txostenak eskatuko dira, izapide

horiek arautzen dituzten xedapenek agintzen duten unean eta moduan, arau-xedapenak prestatzeko gaur egun indarrean dagoen prozedura gogoan hartuta. Bestek beste, honako hauek bildu behar dira:

- Aldi berean eskatuko diren txostenak, 6/2022 Legearen 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako Jarraibideetako lehenengo 2.1.a-n xedatutakoaren arabera.

- Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak (xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak) 3. artikuluan eta otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuak (Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak) xedatutakoaren arabera.

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duen urriaren 18ko 309/2005 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoa oinarri hartuta.

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzaren Herritarrekiko Arreta eta Zerbitzu Digitalen txostena, aipatutako sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren txostena, Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko Legeak 145.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Aurreko izapideak amaituta, jarraian beteko diren funtsezko txostenak:

- Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, maiatzaren 17ko 8/2012 Legeak (Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearenak) 3.1.b) artikuluan ezartzen duena aintzat hartuta.

6/2022 Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, ekonomia- eta araudi-kontrolarena, batetik, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginean eta, bestetik, EAEko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

6/2022 Legearen 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1 artikuluan c) letran xedatuta dagoenaren arabera, 3/2005 Legearen azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoari dagokionez.

6/2022 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

11.- Amaierako espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Amaierako espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitako dokumentazioak osatuko du; prozedura osoari buruzko memoria laburra erantsiko zaio, aipatu 24. artikulua 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

12.- Gobernu Kontseiluak onartua.

Dekretu-proiektua egiteko prozedura amaitu eta gero Gobernu Kontseiluaren behin betiko onespena jasotzeko aurkeztuko da, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Europar Batasunean egin beharreko izapideak.

Europar Batasunaren aurrean ez da inolako izapiderik egiteko beharra ikusten.

Idazteko sistema.

IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialera joko da azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak (Euskararen Erabilera Normalizatzekoak) 8.1 artikuluan xedatzen duena betetzeko; betiere, apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuaren arabera (zeinaren bidez agindu baitzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko).

Prozedura Tramitagune bidez izapidetzea.

«Tramitagune» aplikazio informatikoaren bidez gauzatuko da prozeduraren izapidea, eta Gobernu Kontseiluaren Erabaki hauekin bat etorritik egingo da: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren izapidetze-jarraibideak onartzen dituen; eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituen.

Horregatik, eta azaldutako aurrekari guztiak oinarri hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. - Hasiara ematea Diru-sarrerak bermatzeko errentaren Erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektua prestatzeko prozedurari.

Bigarrena. – Aurreko puntuan aipatutako proiektuaren izapidetzea premiazko zat jotzea, txostenak eta alegazioak egiteko epeak erdira murriztuta eta azalpen-zatian aurreikusitako izapideak eginda.

Hirugarrena.- Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza izendatzea arestian adierazitako proiektua izapidetzeko organo arduradun.

Laugarrena. - «Legesarea» izeneko lankidetzaguneko ezagutzera ematea Agindu honen berri, xedapen orokorrak tramitzeko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoa betetzeko. Horrez gainera, «Legegunea» izeneko espazioan ere ezagutzera ematea.

Bosgarrena. - Araua egiteko beharrezkoak diren azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea, egokia eta legezkoa izango dela bermatzeko.

Vitoria-Gasteiz,

Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA